

DIFERENTZIA SEXUALAREN FEMINISMOA ITALIAN

1966-1989



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Egilea: Jaione Alkain Garcia

Ikasturtea: 2017/2018

Historiako Gradua

Tutorea: Miren Llona Gonzalez

Saila: Historia Garaikidea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. AITZINDARIAK	3
2.1. Bigarren boladako feminismoa edo feminismo erradikala.....	3
2.2. Amerikako Estatu Batuetako 68ko mugimenduen eragina emakumeen borrokan: subjektibotasuna eta autokontzientzia	6
2.3. Frantziako feminismoaren eragina: teoria eta praktika	9
3. ITALIAN: MILANGO EMAKUMEEN LIBURUTEGIA	11
3.1. Italiako emakumeak: emantzipazioa eta tradizioa.....	12
3.2. Berdintasunak ez duenean balio	13
3.3. Aurrera eramandako praktikak: politika egiteko modu berrien garapena	17
3.4. Helburua: emakumeentzako <i>mundu komuna</i> eraiki	23
4. ONDORIOAK.....	26
5. BIBLIOGRAFIA.....	28

ITALIAKO DIFERENTZIA SEXUALAREN FEMINISMOA

1966-1989

Laburpena: Italiako emakumeak, haien tradizioaren ondorioz, laster ohartu ziren berdintasuna bilatzen zuen feminismoak ezin ziela bilatzen zuten helburua lortzen lagundu, nahiz eta ibilbide luze baten ondorioz baino ezin ezagutu hura. Lan honetan, Italian garaturiko diferentzia sexualaren feminismora hurbildu nahi da, 1966-1989 urteen bitartean egondako gertakariak aztertuz eta Milango emakumeen taldea izanik ardatz gisa. Haien ibilbidea aztertu aurretik, beraien pentsamenduan eragina izan zuten aitzindariak azaltzen dira, hots, Amerikako Estatu Batuak eta Frantzia. Erabilitako iturri nagusiak, alde batetik italiar historialarien liburuak izan dira eta bestetik, gertakari haietan parte hartu zuten emakumeen testigantzak. Horiei esker, aurrera eramane zituzten praktika politiko desberdinak ezagutu daitezke, baita garatu zituzten teoriak ere, haien helburua lortzeraino.

Abstract: Due to their tradition, Italian women realized that the feminism that pursued equality may not help them to achieve their goal. This paper looks at the Difference feminism developed in Italy. It has analysed the events occurred during the period that goes from 1966 until 1989, focusing on the group of women of Milan. Before analysing their trail, their thought-related background, this was the US and France. The main sources used have been, on one hand, the books written by Italian historians and, on the other, the testimonies of those women who took part in these events. From the testimonies we can understand the different political practices they conducted and, also, the theories they developed to get their final objective.

1. SARRERA

Lan honen bitartez, nire helburua Italian garatutako mugimendu feministaren nondik norakoak azaltzea da. Bigarren Boladako feminismoen testuinguruan kokatu beharra dugu, hau da, hirurogeigarren hamarkadaren ia bukaeran herrialde honen kasuan, nahiz eta hurrengo hamarkadetan ere garatu. Zaila da mugimendu-sozial bati sortze data zehatz bat ematea, baina Italian, hainbat historialarik, 1969.urtea dute abiapuntutzat¹. Nire lanean Milango kasuari buruz hitz egingo dut eta kasu honetan, kronologia zehatzago bat eman daiteke, bertan parte hartu zuten emakumeen testigantzak izanik nire lanaren iturri nagusia. Idatzi horiek, 1966-1989 urteen artekoak dira.

Herrialde honetan garaturiko feminismo mota aukeratzera eta ikertzera, motibazio desberdinek eraman didate. Noski, historikoa bertan dago, ikusiko dugun bezala, teoria, baita praktika desberdinak eraman bai zituzten aurrera. Baina, horrez gain, motibazio pertsonalago bat ere izan dut kontuan: azkeneko bi urteetan Italian bizitzeko aukera izan dut eta horrek herrialde honetako historia, gertakizun, baita kulturako elementu asko ezagutzeko aukera paregabea eman dit. Honi esker, bertako emakumeen mugimendua ezagutu dut, bizi izan zuten eta oraindik ere bizitzen duten emakumeekin hitz egiteko aukera ere izan dut, baita lehen eskuko informazioa jasotzekoa ere. Elementu guzti horiek baturik, baita herrialde honetara lotzen nauen sentimenduak ere, nire lana Italiako emakumeen mugimenduari buruzkoa izan zedin erabaki nuen.

Esan bezala, motibazio pertsonalez gain, historikoak ere bertan daude, izan ere, Italiaren kasua azaltzea interesgarria iruditu zitzaidan, Bigarren Boladako feminismoan garatu bazen ere, feminismo erradikaltzat² ere ezagutua, bertan mugimendu teoriko desberdin bat garatu bai zen, hots, *femminismo della differenza sessuale*.³ Mugimendu honek izen hori hartu zuen, gizonekiko/maskulinoarekiko diferentzia aldarrikatu zuten eta, emakumeentzako beste mundu bat sortzeko gogo utopikoarekin. Hala ere, ez zen erraza izan, ezta mugimenduan parte hartu zuten emakumeentzako ere definizio zehatzik

¹ Adriana Cavarero & Franco Restaino, *Le filosofie femministe* (Milano: Paravia Bruno Mondadori Editori, 2002), 69.

² Bigarren Boladako feminismoak hartzen duen izena, nahiz eta Italian *neofemminismo* izenarekin agertu.

³ Mugimenduari zerikusiz zuzena duten elementuen izenak italieraz uztea erabaki dut.

ematea: “se limitan a oponerla a la igualdad, sin explicitar qué entienden por diferencia y qué por esa igualdad a la que se oponen”.⁴

Egia esan, eta Ana Rubio Castro-ren hitzak erabiliz, paradoxikoa izan liteke, oraindik berdintasuna lortu ez denean, desberdintasunagatik borrokatzea. Ziurrenik hemen aurkitzen da mugimendu hau ulertzeko zailtasun nagusia.⁵ Baina aldi berean interesgarria egin zitzaidan beste feminismo bati buruz hitz egiteko aukera, esan bezala, mugimendu teoriko handi baten barruan garatu arren, jadanik aipaturiko *neofemminismoa*, Italian beste mugimendu bat eraman bai zuten aurrera, askotan filosofikoegia. Herrialde honen berezitasun nagusiak bi izan ziren, haien artean lotura zuzenekoak: fenomeno politikoa izatea, batez ere, kultural eta sozialaz gain; garrantzia, berdintasunari eman orde, desberdintasunari eman izana.⁶ Honetaz gain, garrantzitsua iruditu zitzaidan Amerikako Estatu Batuetako feminisмотik kanpo, ziurrenik gehienok ezagutzen duguna, agerturiko mugimendu bati buruz aritzea.

Dena den, eta aurrerago sakonago azalduko dudan moduan, definizio zehatzik gabekoa bazen ere, helburu argikoa izan zela esan dezaket. Haien errebindikazio nagusia ez zen izan gizonetik berdintasuna-juridikoa lortzea, berdintasunaren feminismoak dioen moduan. Ez. Haien aldarrikapen nagusia, hitz gutxitan esanda, subjektu izatea lortzea zen, berezko identitatearengatik borrokatzea. Emakume moduan gizartean bere lekua aurkitzea hain zuzen ere, hori lortu ahal izateko, beharrezkoak izango ziren instrumentuak garatuz.

“Lo que se reclama es la necesidad de construir una cultura propia, un nuevo lenguaje y una simbología donde la mujer pudiera reconocerse, donde la mujer no fuese lo otro, lo negativo. (...) comienza a valorarse positivamente todo lo femenino. Se reclama independencia mental. Se rechazan las viejas

⁴ Ana Rubio Castro, “El feminismo de la diferencia: los argumentos de una igualdad compleja, *Revista de Estudios Políticos*, 70 (octubre-noviembre, 1990): 189.

⁵ “La dificultad teórica que esta opción conlleva es cómo dar cabida y valorar la diversidad, cómo construir una relación dialéctica entre igualdad y diferencia.” (Ana Rubio Castro, “El feminismo de la diferencia ...”: 197).

⁶ Anna Rossi-Doria, “Ipotesi per una storia del neofemminismo italiano” *Dare forma al silenzio. Scritti di storia politica delle donne* (Roma: Viella, 2007), 249.

estructuras y jerarquías del pasado. Se demandan nuevas formas de actuar en el ámbito de lo público y de lo privado.”⁷

Lana ikuspuntu historikotik egingo dudala kontuan izanda, lehenik eta behin, Italiako feminismoaren garapenean eragina izan zuen testuingurua azalduko dut. Beraz, modu laburrean, feminismo erradikalak edo Bigarren Boladako feminismoak planteatu zuena azalduko dut, baita Amerikako Estatu Batuetako 68ko mugimenduen eragina ere. Zergatik? Alde batetik, eta jadanik esan bezala, Italiako feminismoa Bolada horretan kokatzen bai da, eta bestetik “Il movimento femminista statunitense ha una valenza privilegiata in questa prospettiva (...) perché esercita una forte influenza sulle origini del neofemminismo italiano”.⁸ Testuinguruarekin amaitzeko, Frantziako desberdintasun sexualaren teoria azalduko dut, izan ere, Italiako feminismoaren teoria osatzerako orduan, bertako ideia asko izan bai zituzten oinarri. Testuinguru historiko hori osatu ahal izateko nire iturri nagusiak Luisa Muraro eta Adriana Cavarero izango dira, italiar feminista eta pentsalari garrantzitsuak, baita Milango Emakumeen Liburutegiko dokumentuak ere.

Beraz, eta laburbilduz, nire lanaren helburu nagusia Italian garatutako feminismoari buruz aritzea izango da, honela emakumeen borroka egiteko beste modu bat erakutsiz. Hori lortzeko testuinguru historiko bat osatuko dut lehenik eta behin. Ondoren Italiako kasua azaltzera joko dut, Milango Emakumeen Liburutegia izanik nire lanaren ardatz. bai ikuspuntu teorikoan, haien planteamenduetan, baita haien lorpenetan ere. Lanaren muina izango dena azaltzeko, nire iturriak Milango Emakumeen Liburutegiko emakumeen testigantzak biltzen dituzten liburuak izango dira.

2. AITZINDARIAK

2.1. Bigarren boladako feminismoa edo feminismo erradikala

Jakina da, Lehenengo Boladako feminista liberalen⁹ helburuak eskubide juridikoak lortzearen aldekoak izan zirela, hots, legearen arabeko gizonetikiko berdintasun

⁷ Ana Rubio Castro, “El feminismo de la diferencia ...”: 186-188.

⁸ Luisa Muraro, *Storie delle donne e femministe* (Torino: Rosenberg & Sellier, 1991), 134.

⁹ XIX.mende amaiera eta XX.mende hasiera bitarte garaturiko emakumeen borrokak bi ikuspuntu desberdin garatu zituen: bata joera liberalekoa izan zen, emakume burgesen eskutik eta haien helburu

juridikoa. Hori, hitz gutxitan, boto-eskubidearen aldeko borroka izan zen, batez ere Britainia Handian eta Amerikako Estatu Batuetan. Mugimenduak eskaturiko eskubide horietako asko lortu zituen (botoa, herentziaren kudeaketa edo jabetza izateko aukera, esate baterako), baina ez guztiak. Hauek beraz, lorpen gazi-gozaok izan ziren, batez ere hurrengo belaunaldiarentzako, Lehenengo Boladako emakumeen borrokaren mugak onartu behar izan bai zituzten.¹⁰

Zeintzuk izan ziren muga horiek? Nolabaiteko berdintasuna lortu arren, oraindik ere emakumeen egoerak menpekotasunezko izaten jarraitzen bai zuen, bai gizartean, baita familian ere. Cavarerok esan bezala: “Rimaneva il problema del lavoro domestico e cura dei figli e della famiglia in generale nonchè una tensione di fondo nei rapporti con gli uomini”.¹¹ Bigarren Bolada deituriko emakumeek beraz, opresiozko egoera horri erantzun berri bat ematen saiatu ziren, jadanik ez bai zuten iraganeko erantzun liberal edo sozialistek balio.

Oraingoan erantzunak desberdina izan behar zuen, arazoaren “sustraietara” jotzea beharrezko izanik;¹² eta hura, ez zegoen ez ustiapen ekonomikoan, ezta emakumeak eskubideetatik kanpo mantentzean ere. Belaunaldi berri honetako feministentzako gizonak gizartean zuten gailentasuna mantendu izanaren zergatia, hauek eremu sexualean zuten guztizko nagusitasunaren ondorio zuzena zen. Hau izan zen, orokorrean, erantzun nagusia, nahiz eta motibazio teoriko eta proposamen praktiko desberdinak izan.

Beraz, eta esan bezala, feminismo berri honen teorien muina sexualitatearen esfera izan zen, bertan aurkitu bai zuten garaiko emakumeek haien menpekotasunaren arrazoi nagusia. Haien ideien oinarria gizon eta emakumeen arteko dikotomia izan zen. Honek haien arteko elkarlana zailtzen zuen, aurreko feminismoak bilaturiko zerbait, horrenbestez iraganeko feminismoekiko hausкета erradikala. Cavarerok eta Restainok diotenez: “Le nuove femministe intendono partire da zero: «Non possiamo fondarci

nagusia boto-eskubidea izan zen, beste eskubide juridikoen artetik; bestea, aldiz, joera sozialista izan zen, emakume proletarioaren borroka, baina ez emakumerena soilik. Haientzako, lege-konkistek ez zuten haien menpekotasun egoerarekin bukatuko, ustiapen ekonomikoko egoera bait zen. Iraultza komunista beharrezkoa izango zen, menpeko egoera guztiekin amaitzeko eta, horien artean, baita emakumerena ere.

¹⁰ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 10-14.

¹¹ Ibidem, 31.

¹² “La risposta deve essere diversa, deve andare “alle radici”; deve essere cioè *radicale*.”

sulle ideologie esistenti, in quanto sono tutte prodotti della cultura a supremazia maschile». Punto di partenza del loro pensiero, (...) è che le donne sono una classe oppressa. Questa oppressione ha una causa ben precisa: gli uomini”.¹³

Hau guztia, *Readstockings* talde estatubatuarrak Bigarren Boladako lehenengo manifestu teoriko eta politikoan adierazi zuen, *Notes from the First Year* (1969) deiturikoa, hura Italiako *neofemminismoko* lehenengo aldizkarirako eredu izan zen.¹⁴ Testu hori izan zen, Luisa Passeriniaren hitzetan, feminismo erradikalera iragatea eragin zuena, askatasunaren alderdi pertsonal eta psikologikoa nabarmentzen bai du, baita norbanako eta taldeko identitateari zentzu berri bat eman ere.¹⁵ Bertan, teoriak gain emakumeen arteko erlazioak nolakoak izan behar zuten adierazi zuten, arrazoi berriarekin batera, hauek zabaltzeko hedabide berriak ere beharrezkoak bai ziren, eta horiek elkarlanaren aldekoak izango ziren oraingo honetan.¹⁶ Ideia hau, hurrengo azpiatalean landuko dut.

Haien ideiak azkar zabaldu ziren, nahiz eta ñabardurekin herrialdearen arabera baita haietan bizi ziren egoeren arabera ere, baina azken finean, helburu komunak izanik: antisorgailuen eskuragarritasuna, lagunduriko abortuaren legalizazioa, tratu txarrak jasotako emakumeentzako “etxeak” eta abar. Ñabarduretako bat, diferentziaren feminismoa izan zen, “emakume izatea ederra da” eslogan pean. Haien proposamen nagusia, femeninoak berriro ere balio hartzea zen, kultura patriarkalaren eta haren antolamenduen kontra jarriz, baita haren balore maskulinoak ukatuz. Feminismo honek ere, joera desberdinak izan zituen, baina azken finean emakumearen ezaugarritzat hartzen ziren elementuak goraiatu zituzten.¹⁷

¹³ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 35.

¹⁴ Luisa Passerini, *Storie di donne e femministe*, 154: 1969an Italian sorturiko emakumeen taldeen eztabaiden inspirazio izanik mugimendu estatubatuarraren dokumentuak.

¹⁵ *Ibidem*, 139.

¹⁶ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 35-36.

¹⁷ Susana Gamba, “Feminismo: historia y corrientes”, *Estudios de Género y Feminismos*, (Buenos Aires: Editorial Biblos, 2008), 4. Este feminismo reúne tendencias muy diversas reivindicando por ejemplo que lo irracional y sensible es lo característico de la mujer, revalorizando la maternidad, exaltando las tareas domésticas como algo creativo que se hace con las propias manos, rescatando el lenguaje del cuerpo, la inmensa capacidad de placer de la mujer y su supremacía sobre la mente, la existencia de valores y culturas distintas para cada sexo, que se corresponden con un espacio para la mujer, y un espacio para el varón, etc.

Italian gaiak diferentzia sexualaren eta gizartean aukera feminista bat sortzearen aldekoak izan ziren, gizonen kultura dominatzailearen tradizioaren kontrakoa, hots, diferentziaren feminismoa. Hura izan zen herrialde honen originaltasuna.¹⁸ Haien iritziz emakumeen borrokaren akats handia legeen bitartez berdintasunaren alde borrokatzea izan zen, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun naturalak ukatuz. Carla Lonziren hitzetan: “El mundo de la diferencia es el mundo en el que el terrorismo depona las armas y la superchería cede al respeto de la variedad y multiplicidad de la vida”.¹⁹

Diferentzia sexualaren feminismoa izango bada ere nik lan honetan landuko dudana, aipatzekoa da Italian beste korrante batzuk ere eman zirela honekin batera, beti feminismo erradikalaren marko-teorikoan eta askotan haien arteko erlazioa izanik. Sorrera liberaleko taldeak (*Movimento di Liberazione della Donna*) izan ziren sexualitatearen eta antisorgailuen inguruan aritu zirenak. Bestalde, marxismoan jatorria zuten taldeak (*Lotta Femminista*) ere sortu ziren.²⁰

2.2. Amerikako Estatu Batuetako 68ko mugimenduen eragina emakumeen borrokan: subjektibotasuna eta autokontzientzia

Esan bezala, Amerikako Estatu Batuetan garaturiko emakumeen mugimenduak erlazioa izan zuen gainontzeko herrialdeetan ere feminismoa zabaldu ahal izateko. Honek 68ko gizarte mugimenduetan du habia, zeinetan ikasleak izan ziren protagonistak, bertan aurkitu dezakegu feminismo erradikalaren garapenerako oinarria. Milango Emakumeen Liburutegiko emakumeek esan zidatenez, baita Luisa Passerini dioenez ere, Estatu Batuetako 68ko mugimenduak Italiako feminismoari egindako ekarpenak bi izan ziren: alde batetik subjektibitatearen kontzeptua, hau da, *sé stesso* edo norbanakoaren aurkikuntza (subjektibotasuna), eta bestetik *autocoscienza* taldeak.

Estatu Batuetako feminismoaren sorrera ezker aldean zeuden mugimenduei egindako kritikaren ondorio izan zen. Sektore honek gizartean ahazturik ziruditen hainbat arazo plazaratu zituen, hots, hegoaldeko herritarren eskubideen aldeko borroka. Baina borroka

¹⁸ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 37.

¹⁹ Carla Lonzi, “Sputiamo su Hegel”, *Sputiamo su Hegel* (1970; Milano: Galli Thierry Stampa, 2013), 16-17.

²⁰ Luisa Passerini, *Storie di donne e femministe*, 178.

horretan emakumeak alde batera utzi zituzten. Luisa Passerini dioen lez: “Noi tutti credevamo nella democrazia, ma gli uomini ci avevano chiuso gli occhi per anni. Mostravano tanta empatia per i vietnamiti e per i neri, ma non per le donne”.²¹ Hasiera batean, emakumeek talde mistoetan borrokatu zuten, gizonaekin batera, baina pixkanaka, haien ahotsak isilarazten zituztela ikusi zuten.

Ikasleen mugimenduetara itzuliz, *Free Speech Movement*-eko politika hartu beharko genuke haien habiatzat, Berkeley-ko Unibertsitatean, Kalifornia. Politika honen helburua adierazpen-askatasuna izan zen, orain arte hitz egiteko aukera ez zuten horiek egin zezaten.²² Ideia hau, ondoren emakumeek haien taldeetan, gizonengandik banantzean, errepikatuko zuten. 68ko mugimenduei eskertu behar zaie momentura arte iluntasunean utziriko subjektuen nabarmentzea, horien artean emakumeena. Ikasleen mugimenduan (esfera politikoan), nolabait, parte hartzeko aukera izan zuten, hau da: esfera publikoan subjektu aktibo moduan parte hartu zuten. Nahiz eta aldi berean haien eskubideak eta gaitasunak ukatuak izan.²³

Denborarekin, emakumeak gizonengandik banandu ziren, haien taldeak sortuz. Zergatik? Gizonaekin batera zeuden taldeetan haien iritziek edo haien errebindikazioek garrantzirik ez zutela ikusi bai zuten, azken finean diskriminazio sexuala jasaten zuten beste motatako diskriminazioen kontra borrokatzen ziren erakundeen barnean.²⁴ Ondorioz, 1965.urtean emakume talde batek haien kabuz bilera bat egitea erabaki zuten, eta urte berdinean Now (National Organization for Women) organizazioa sortu zuten.²⁵

Emakumeak berezko mugimendua sortuz, ikusmiran haien arazoak eta interesak jarri zituzten, baita beraien arteko erlazioak ere. Lehen ikasle mugimenduek erabilitako elementu politikoak errepikatu zituzten, baina oraingoan beraien esperientziak izanik protagonistak. Honek beraz iraganarekiko haustura eta lotura zuzena erakutsi zuen: “da

²¹ Ibidem, 138.

²² Ibidem, 133.

²³ Ibidem, 146-149.

²⁴ Esate baterako, SNCC (Student Non-Violent Coordinating Committee) ikasle organizazioan emakumeak erabaki garrantzitsuak hartzen zituzten esparruetatik kanpo mantendu behar ziren, idazkaritza lanetara baztertuak izanik. Honetaz gain, haien jarrerak burumakurra izan behar zuela zioten txantxak ere jasan behar zituzten. (Luisa Passerini, *Storie di donne e femministe...*, 136).

²⁵ Luisa Passerini, *Storie di donne e femministe..*, 137-138.

un lato l'assoluta novità di sentire e di esprimersi nel linguaggio e nell'azione, dall'altro la ripresa dei termini propri del movimento dei diritti civili e del Free Speech Movement: la presa di coscienza e di parola".²⁶ Hau da, beraien egoeraz eta arazoez ohartu ziren, baita haien autonomia defendatu ere, kolektiboaren pean. Beraien diskurtsoan emakumea zen subjektu. 60ko hamarkada amaieran emandako feminismoa, emakumeen subjektibitatearen bilaketa eta baieztapenaren mugimendutzat interpretatu daiteke beraz.²⁷

Aurreko atalean aipaturiko ideiara itzuliz, zeinetan emakumeen arteko erlazioak elkartzearen aldekoa izan behar zuela esan dudan, politika egiteko modu berri bati hasiera eman zioten. Hau izan zen Italiarekiko bolada honek izandako bigarren elementua. Emakumeak haien esperientziez hitz egiteko biltzen hasi ziren, haien egoeraz kontzientzia har zezaten, mugimenduak sustraiak azkar eta erraz bota zitzala eraginez. Italian talde horiek *gruppi di autoscienza* izenez ezagutu ziren.²⁸ Milango Emakumeen Liburutegiak planteatu moduan: "Los grupos de autoconciencia nacieron espontáneamente (...) cuando algunas mujeres hicimos el gesto de separarnos de la política mixta de izquierda, porque no podíamos soportar más su violencia".²⁹ Politika egiteko modu berri bat izan zen, haien eskakizun eta beharrak muintzat zituena, haien egoeraz kontzientzia hartzea eragingo ziena.³⁰ Dena den, aurrerago, Milango emakumeen taldeak aurrera eramandako praktikak azalduko ditut, autokontzientziak izan zituen ezaugarri, lorpen eta eraginak hobeto jorratuz. (Ikus 3. Aurrera eramandako praktikak: politika egiteko modu berrien garapena).

"Il nuovo movimento è dato da una somma di piccoli circoli di donne(...)Nei "gruppi di autoscienza" si mettono a fuoco le esperienze della vita della donna e del suo rapporto con gli uomini, si analizzano sia i testi classici del pensiero femminista, sia i nuovi contributi teorici, si afferma la centralità "politica" dell'esperienza personale."³¹

²⁶ Ibidem, 137.

²⁷ Ibidem, 161.

²⁸ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 32-33.

²⁹ Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba* Madrid: horas y HORAS, 2006), 8.

³⁰ Ibidem, 23-24.

³¹ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 33.

Amaitzeko, kontuan izan beharra da Italian 68ko mugimendu sozial guztiek ez zutela emakumeen mugimenduaren sorrera ekarri. Bigarren Gerrate Mundialaren ostetik herrialde honetako emakumeek haien tradizio emantzipatzaileari hasiera eman zioten, baita familiak kanpo zeuden beharrak zituztela adierazi ere. Atal honekin argi utzi nahi nuena, eta Luisa Passeriniren hitzak erabiliz, zera zen: mugimendu guzti horiek atzera bueltarik izango ez zuen zerbait ekarri zutela. Honela, momentura arte isilarazita zeuden subjektuak haien lekua errebindikatu zuten, Italian emakumeen mugimendua zabalduz.³² Hona hemen Passeriniren hitzak:

“(...) il periodo più attuale del femminismo è nato dalla rivolta ideologica del 1968. Se non c'è stata rivoluzione nei fatti, si è almeno operato un cambiamento nelle strutture mentali. E più di ogni altro il movimento femminista ha raccolto lo spirito che animò quel periodo: una volontà assoluta di cambiamento, un «niente sarà più come prima».”³³

2.3. Frantziako feminismoaren eragina: teoria eta praktika

Annalisa Miriziok, Luisa Muraro italiar filosofoaren hitzak erabiliz, Italiako diferentziaren feminismoaren pentsamenduaren garapen teorikoa Luce Irigaray filosofo frantsesari zor diola dio.³⁴ Egia da, eta jadanik aurreko puntuan ikusi bezala, Amerikako Estatu Batuetan sorturiko autokontzientzia taldeak izan zirela Italiako feminismoaren muina, aurrera eramandako praktiken artetik nagusia. Baina une batean, hura ez zela nahikoa ikusi zuten eta ondorioz praktika berri bat garatzea beharrezkoa zela. Orduan, italiar emakumeek, Frantziako feminismora jo zuten. Talde honen eragina beraz, alde batetik teorikoa eta bestetik praktikoa izan zela esan daiteke.³⁵

Gainontzeko herrialdeetan gertatu moduan, Frantzia ere emakumeen mugimendua 1968-1970 urteen bitartean jaio zen, eta gainontzeko herrialdeetan gertatu bezala, talde desberdinak ere agertu ziren. Guri *Psychanalyse et Politique* (1968) taldea interesatzen zaigu, alde batetik Luce Irigaray filosofoa bertako partaide izan bai zen eta bere ideiak azalduko bai ditut; eta bestetik, italiarrek aurrera eramandako praktika politikoetako bat,

³² Luisa Passerini, *Storie di donne e femministe*, 159-160.

³³ *Ibidem*, 155-156.

³⁴ Annalisa Mirizio, “¿Adónde conduce la exaltación de lo femenino? Logros y límites políticos del pensamiento de la diferencia sexual italiano”, *Feminismo/s*, 15 (junio, 2010): 97.

³⁵ Puntu honetan, alderdi teorikoaz arituko naiz, praktikoa 3.3.atalean azaltzen dut eta.

haien praktika nagusia izan zen eta. Irigaray-ren pentsamendua eta haren ideien oinarria azaldu aurretik, horiek guztiak filosofian eta psikoanalisian oinarri handia izan zutela aipatu beharra dago. Edo, hobeto esanda, mendebaldeko tradizio filosofiko eta psikoanalitikoaren kritikan. Ideia horiek *Speculum* (1974) doktoretza-tesian aurkitu ditzakegu, haren ideiak ulertu ahal izateko ardatza, nahiz eta aurrerago argitaraturiko beste hainbat tesitan ideia horiek garatzen jarraitu.³⁶

Speculum tesira itzuliz, bertan diferentzia sexualaren teoriaren nolabaiteko “sorrera” bat proposatzen du, autoreak egindako kritika horien analisi pertsonalean oinarri duena. Bere helburua, unera arteko tradizio filosofiko baita psikoanalitikoaren kontra, sexualitate femeninoaren goraipamena izan zen, horren inguruan gizonak izan zitzaketen ideiak alde batera utziz. Tradizio maskulinoak gizona baino ez du kontuan hartzen subjektutzat eta ondorioz, harekin zerikusia duten elementu guztiak dira onak. Emakumeek elementu horiek ez dituzenez, hutsik daude, zerbait falta zaie eta beraz gizonarekiko, baita haren sexualitatearekiko ere, inbidia dute. Psikoanaliak, Freud-en ideiak kontuan izanik, zakila osotasuntzat ulertzen zuten eta beraz, alua haren kontrakoaz: hutsunea, ezereza. Honek emakumeak zakilarekiko inbidia izan zezala sortzen zuen, haren sexualitatearen faltaren ondorioz.³⁷

Luce Irigarayk ideia guzti horiek desegiten ditu, emakumearen gorputza eta haien gozamena zentroan ipiniz. Emakumearen plazerra eta organo sexualak ezin dira patriarkatuaren legeen arabera azaldu, emakumeek haien kabuz ikasi beharreko zerbait da: sexuak izan behar zuen emakumeek haien identitatea ulertzeko tresna, eta ez autokontzientziak.³⁸ Tesi honetan oinarriturik, talde frantsesak emakumeen arteko erlazioen praktika eraman zuen aurrera, ondoren Italiakoentzako eredu izan zena. Ez zen lesbianismoa, gizonen gozamenetik kanpo praktikaturiko sexualitatea baizik, eta haien helburua emakumeek beraien sexualitatea berreskura zezaten zen.³⁹

³⁶ Luisa Posada Kubissa, “Diferencia, identidad y feminismo: una aproximación al pensamiento de Luce Irigaray”, *LOGOS. Anales del Seminario de Metafísica*, 39 (2006): 189.

³⁷ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 49-51.

³⁸ Luisa Posada Kubissa, “Diferencia, identidad y feminismo: una aproximación al pensamiento de Luce Irigaray”, *LOGOS. Anales del Seminario de Metafísica*, 39 (2006): 190-191.

³⁹ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos* (Madrid: horas y HORAS, 1991), 52-53.

3. ITALIAN: MILANGO EMAKUMEEN LIBURUTEGIA

Lanaren muinera iritsi gara beraz. Atal honetan, lehenik eta behin, garai honetan Italian feminismoan barneratu ziren emakume-belaunaldiari buruzko ezaugarriak azalduko ditut, baita lehenengo taldeen sorrera ere. Ondoren, diferentzia sexualaren korpus teorikoa landuko dut. Lehenik eta behin, berdintasunaren ideiak haientzako zergatik ez zuen zentzurik azalduko dut, diferentziaren feminismoa ulertu ahal izateko. Ondoren, Milango emakumeen taldeak aurrera eramandako praktikak azalduko ditut, marko kronologikoa emanez, honela Milango Emakumeen Liburutegiaren sorreraraino iritsiz. Espazio horretan landu zuten haien teoriaren muina, eta hura izango da azkenik azalduko dudana.

Neofemminismo italiarrak konplexutasun ugari ditu, izan ere bere kabuz unibertso oso bat sortzen bai du, zeini deskripzio sinple bat ematea ez da erraza. Egia esan, haien diskurtsoa ez zen batere erraza izan. Mugimenduaren historia oraindik ez da idatzi, nahiz eta kontribuzio ugari egon. Egia esan, testu ugari daude emakumeen taldeetan bizitakoari buruz aritzen direnak, urte horietan zehar parte hartu zuten emakumeen testigantzen transkripzioak. Baina alde batetik talde bakoitzak, baita emakume bakoitzak ere, bere esperientzia izanik, eta bestetik, praktika desberdinak aurrera eramanez, orokorrean mugimenduaren nondik-norakoak azaltzeko zailtasunekin aurkitu gaitzake, edota kronologia zehatz bat ematekoarekin ere.⁴⁰

Aurkitutako beste arazo bat, iturrien ingurukoa da. Iturri horiek, lehenengo pertsonan kontaturiko esperientziak diren heinean, subjektibotasun askokoak izan daitezke. Fantasia asko aurkitu daiteke beraietan, baita mitifikazio handia ere, emakumeen taldeek aurrera eramandako praktiken inguruan edo mugimenduak bere osotasunean izandako ekarpenetan ere. Horregatik, nire lanean oso garrantzitsua izan da *Non credere di avere dei diritti* liburua, Milango Emakumeen Liburutegiak argitaratua. Nahiz eta kontatutakoa testigantzetan oinarriturik egon, bertan mugimenduari egindako kritikak ere aurkitu bai daitezke.

Hau kontuan izanik, nire lanaren muina, mugimendu honi buruzko ezaugarriak emateko orduan, Milango Emakumeen Liburutegiko iturriekin egingo dut. Erabilitako liburu nagusiak *La cultura patas arriba* (2006) eta *No creas tener derechos* (1991) izan dira.

⁴⁰ Anna Rossi-Doria, "Ipotesi per una storia del neofemminismo italiano" ..., 251-256.

3.1. Italiako emakumeak: emantzipazioa eta tradizioa

Italian emakumeen mugimenduari hasiera emango zioten belaunaldiak 30ko hamarkada amaiera eta 50ko hamarkada hasieran jaiotakoak izan ziren. Emakume horien biziak kontraesanak definitu zituen. Haien formazioa ulertzeko, Italiako historia kultural eta sozialaren laburpena beharrezkoa da, emakumeengan izan zuen eragina kontuan izanik.

Italiako Faxismoko urteak harturik abiapuntutzat, emakumeek izan beharreko papera kontrakoak ziruditen bi adarretan banatzen ziren. Alde batetik erregimenak familiarekiko emantzipazioa bultzatu zuen, nolabaiteko protagonismo emanik emakumeei etxeetatik kanpo, batez ere jarduera filantropikoetan, inoiz ez politikoa. Bestetik emakumearen rol tradizionalak bultzatu zituen, ama eta emazte bihurturik berriro ere. Azkenean, bi adarrek lotura zuten: emakumeen aktibismo filantropikoa bultzatzeak, familian zuen rol berdina gizartean ere errepikatzea baino ez zuen egin. Emakumeen espazioak pribatua izaten jarraitzen zuen, etxekoa, nahiz eta faxismok haien beharrei erantzun bat eman ziela iruditu.

Bigarren Gerrate Mundialaren ondorengo urteetan, emakumeek konkista garrantzitsuak lortu zituzten; adibidez boto eskubidea edo lan munduan presentzia handiagoa. Hau da, Legeen arloko konkistak. Honekin batera, Luisa Passerini emantzipazio informal moduan definituriko portaerak garatu zirela dio: kontsumo arloa beraienez diseinatu zen, bidaiatzen hasi ziren, baita sexualitatean interesatzen ere. Gainera, Italia gainontzeko mendebaldeko herrialdeen maila berdinean jarri nahi zen, emakume modernoaren aldeko hezkuntza-kanpainak bultzatuz. Baina honekin batera emakumeen marjinazio politikoa eman zen. Errepresentazio gutxi zuten Parlamentuan, haien aldeko legeen geldialdia eraginez. Gainera, gainontzeko herrialdeetan gertatu moduan, legeen konkista horiek, emakumeengan erdizkako errekonozimendua lortu izanaren sententzia eragin zuten.

“La conquista di diritti civili e leggi riformatrici, che segnano la vita sociale e politica dell’Italia repubblicana, si intreccia tuttavia con la percezione, da parte delle donne, di raggiungere “diritti dimezzati”, di accedere finalmente alla politica, ma di dover ancora scavalcare il muro di una coscienza sociale

e culturale che stenta a riconoscere alle donne un diritto di cittadinanza uguale a quello dell'uomo.”⁴¹

Kontraesanez beteriko testuinguru guzti honetan, zenbait prozesu kultural eta politiko eman ziren, 50ko hamarkada amaieran hasiak, eta hurrengo hamarkadan jarraituko zutenak. Asoziazionismo katolikoetan genero diferentziaren inguruko lehenengo eztabaidak eman ziren, honela arazo horri buruz kontzientzia hartzen joanik. Aldi berean, feminismoaren inguruko beste herrialdeetako produkzio literarioak iritsi ziren Italiara, emakumeengan subjektibotasunaren lehenengo aurkikuntzak izango zirenak. Azkenik, 1965-66.urteetan, gizarte patriarkalari buruz eta gizarte mota honek emakumeengan sortzen zuen opresioari buruz hitz egiteko eztabaida-taldeak sortu ziren. Horietako bat *DEMAU (Demistificazione dell'autoritarismo)* izan zen, Milango feminismoarako nukleo garrantzitsua. Haien kritika ordura arte emantzipazioaren alde egin zuten emakumeen taldeei egin zioten, eta beraz, Diferentziaren Feminismoaren hasiera puntutzat hartu daiteke.⁴²

Erakutsi bezala, Italiako XX.mendeko emakumeen bizitza kontraesanez beterikoa izan zen, emakumeen rol tradizionalen defentsak eta emantzipazioaren aldeko borroak definiturikoa. Egoera honen testuinguruan, ulergarria da diferentzia sexualaren feminismoak Italian sustraiak bota izanak, teoria honek generoen arteko diferentziak onartzen bait ditu, aldi berean emakumearen rol tradizionala babesten duen bitartean.

3.2. Berdintasunak ez duenean balio

Berdintasunaren kontzeptua sortu zenetik, Estatu Modernoen sorrerarekin batera, puntu gorena Frantziako Iraultza izanik, emakumeaz ahaztu ziren. Gizonak, “berdintasun unibertsalarengatik” borrokatu zutenean, Erregimen Zaharraren bidegabezko printzipioen aurka, gizonen arteko berdintasunagatik baino ez zuten egin. Emakumea, beti bezala, esfera publikotik kanpo geratu zen, haren egoera naturala esfera pribatua zela justifikatuz. Berdintasun horren muina, sufragio unibertsala izan zen, unibertsaltzat ulertu dezakegun kontzeptu bat, gizonak baino ez baditugu kontuan. Politikan beraiek

⁴¹ Fiamma Lussana, “Le donne e la modernizzazione: il neofemminismo degli anni settanta”, *Storia della Italia repubblicana III* (Torino: Giulio Einaudi, 1997), 482.

⁴² Luisa Passerini, *Storia di donne e femministe*, 140-145.

ziren subjektu bakarrak. Berdintasunaren aldeko borroka hasi zenerako, emakumeak galtzaile izan zen, parte hartzeko astirik ere izan gabe.⁴³

Horrenbestez, XVIII.mendean hasi zen emakumeen berdintasunaren aldeko eskakizuna, gizonek haien artekoa aldarrikatu zuten une berdinean. Berdintasuntzat, emakumeek gizartean parte hartzeko aldarrikatzen zuten haien eskubidea ulertu behar dugu. Hura, gizonezkoek zituzten ahalmen berdinak zituztenaren onarpena izango zen.⁴⁴ Berdintasuna, helmuga unibertsal bilakatu zen horrela, baina kontzeptu hartan ez zituen sexu femeninoko izakiak kontuan hartu, nola azaldu daiteke hura? Gizonak, haien arteko historia komunaren bitartez iritsi bai ziren berdintasuna beharrezkoa zutela ondorioztatzera,⁴⁵ emakumeek historia horretan ez zutela parte hartu ulertu gabe. Hori zen emakumeek zuten oinarritzko desberdintasuna: milioika urte zeramatzaten gizonezkoen historiatic kanpo.⁴⁶ Gizonek sorturiko berdintasunaren kontzeptuak ez zuten erlazioerik emakumeen historiarekin, ezta haien arteko erlazioekin ere. Beraz, bertan sartu nahi izateak ez zuten inolako koherentziarik.⁴⁷ Luce Irigarayek dioen moduan: “Reclamar la igualdad, como mujeres, me parece la expresión equivocada de un objetivo real. ¿A qué o quién desean igualarse las mujeres? ¿A los hombres? ¿Por qué no a sí mismas?”⁴⁸

Idea hau kontuan izanik beraz, ez zuten inolako zentzurik berdintasunaren alde borrokatzeak, Lehenengo Boladako feministek egin zuten moduan, zeren emakumeek ez zuten inoiz berdintasunik lortuko boto eskubidea izan arren, gizonen munduan. Filosofia eta ideia honetan oinarriturik sortu zen *DEMAU* taldea (1965), Milango Diferentziaren Feminismoarako oinarria. Egia esan, hainbat historialarik ez dute talde hau Diferentziaren Feminismoaren hasieratzat hartzen, ez bait zuten autokontzientziaren praktika aurrera eraman, 1970ko hamarkadan iritsia, Italiako feminismoaren ezaugarri nagusia izan zen praktika. Beste askok aldiz, Italiako feminismoaren kronologian

⁴³ Adriana Cavarero et al., *Le filosofie femministe*, 33.

⁴⁴ Carla Lonzi, “Sputiamo su Hegel”..., 13.

⁴⁵ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 184.

⁴⁶ Carla Lonzi, “Sputiamo su Hegel”..., 15.

⁴⁷ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 184.

⁴⁸ Aránzazu Hdez. Piñeiro, “Igualdad, diferencia: genealogías feministas”, *Feminismo/s*, 15 (junio, 2010), 9.

kontuan hartzen dute haien ideiegatik hain zuzen ere, izan ere, orain arte aipatutako arazoa planteatu bai zuen, baita nolabaiteko irtenbide bat eman ere.⁴⁹

1966ko abenduaren 1an *DEMAU* taldeak haren Manifestua argitaratu zuen: *Manifesto programmatico del Gruppo DEMAU*, feminismo italiarraren lehenengo dokumentutzat hartu daitekeena. Dokumentu honen gai nagusia, emakumearen eta gizartearen arteko erlazioa da, zehazki erlazio horretan sortzen den kontraesanean. Hura izan zen talde honek ekarri zuen ikuspuntu berria: emakumearen eta gizartearen artean kontraesan handi bat dago, gizarteak ez bait du emakumea kontuan eta, aldi berean, emakumeak ezin bai du haren lekua aurkitu gizonak sortutako gizarte honetan. Integrazioaren edo berdintasunaren alde egin zuen feminismoa ere kritikatu zuten, horrek emandako konponbidea emakumeak mundu maskulinoan integratzea zen eta. Haien iritziz, ez zuten kontuan izan mundu horrek haiekin kontraesanean izaten jarraituko zuela, gizonezkoena bait zen, emakumeen eskusio soziala oinarri izanik sorturikoa. Legeen bitartez ezingo zuten haien lekua aurkitu. Nahiz eta oraindik ez ziren iritsi emakumeentzako mundu bat beharrezkoa zela esatera, jadanik ideia hori sumatu liteke emakumeak mundu horretan bere osotasunean ezin zela adierazi esaten bait zuten.⁵⁰

Manifestu honi, Erromako *Rivolta femminile* taldearena gehitu behar zaio, 1970ean argitaratua, filosofia honen nondik-norakoak osatzeko. Talde honek emakumearen eta gizonaren arteko diferentzia kontuan hartu beharreko elementutzat aurkeztu zuen. Berdintasunean oinarritu ezker, gizona hartu beharko lukete erreferentziatzat, baina emakumeak ez du haren irudia gizonen islatu behar, emakumean baizik. Subjektu izan emakumea delako, gizonarekiko bestea. Emakumeak askatasuna lortu ahal izateko, ez du gizonak aurrera eramandako biziak koptatu behar, haren existentzia adierazi baizik.⁵¹

Azken finean, lehenengo talde hauek adierazi nahi zutena, emakumea gizonak sorturiko gizarteak emandako irudia baino gehiago zirela zen. Patriarkatuak bigarren mailako hiritar izatera zigortu zituen, haien benetako gaitasunak ezkutatzera behartuz. Errealitate honetan, gizonarekiko berdintasuna lortu nahi izateak ezin zuen erantzunik eman,

⁴⁹ Luisa Passerini, *Storie di donne e femministe*, 182-184.

⁵⁰ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 29-31.

⁵¹ Carla Lonzi, "Manifesto di Rivolta Femminile"... , 6-11.

emakumeak haren “emakume izatea” ezkututzen jarraitu beharko bai zuen mundu horretan bizi ahal izateko. Biziraun ahal izateko. Manifestu hauen ideia nagusia, aurrerago garaturiko talde feministen oinarri izan zena, hots, Italiako feminismorena, Adriana Cavareroren hitz hauen bitartez laburbildu daiteke: “L’idea chiave (...) è che le donne non devono puntare alle rivendicazioni egualitarie rispetto agli uomini e da loro definite “universali” (in realtà maschile, cioè “sessuate” al maschile) ma far leva sulle “differenze” ed esaltare i valori positivi dalle parte delle donne.”

Desberdinak zirela ulertzeko nolabaiteko gaitasuna izan zuten, baina honi guztiari korpus teoriko bat eman behar zitzaion, desberdintasun horien zergatia azaltzeko ahalmena izan. 70eko hamarkada amaieran, Milango emakumeen kolektiboak, Erromako emakumeen zentro kulturalarekin elkartu ziren, emakumeen eta kulturaren arteko erlazioa aztertzeko eta jatorrizko desberdintasun hori aurkitzeko. Jada talde teorikoetan sarturik, garai desberdinetako emakumezko-autoreen lanak aztertu zituzten, Virginia Woolf-enak batez ere, eta mundua emakumeek gizonekiko modu desberdinean sumatzen zutela ulertu zuten. Haien esperientziak ez ziren berdinak, desberdin jaio ziren eta beraz desberdin pentsatzen zuten.

Feminismo honek emakumeek berezko identitatea sortzearen beharra aldarrikatu zuen; subjektu autonomotzat kontuan hartuko zituen identitate bat.⁵² Emakumeak emakume zer zen ikasi behar zuen, baina bere kabuz, ez gizonezkoen gizarteak eraikitako irudian oinarrituz. Hura izango zen haien askatasunerako lehenengo pausoa. Lortu ahal izateko, praktika politiko desberdinak eraman zituzten aurrera, baina lehenengoa, garrantzitsuena eta Italiako feminismoaren sinonimotzat ulertu zena, autokontzientzia taldeak izan ziren. Praktika hura izan zen emakumeen mugimenduaren abiapuntua. Haren bitartez lortu zuten haien barnean zeramaten desberdintasun natural hura aditzera ematea, eta praktika desberdinak garatu zituzten heinean, haien teoria osatzea ere.

“La diferencia es un principio existencial que concierne a los modos del ser humano, a la peculiaridad de sus experiencias, de sus finalidades, de sus aperturas, de su sentido de la existencia en una situación dada y en la situación que quiere darse. La que se da entre el hombre y la mujer es la diferencia básica de la humanidad.”⁵³

⁵²Annalisa Mirizio, “¿Adónde conduce la exaltación de lo femenino?...”, 97-100.

⁵³ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 36.

3.3. Aurrera eramandako praktikak: politika egiteko modu berrien garapena

Behin eta berriro esan moduan, nire lanaren muinerako Milango emakumeek aurrera eramandako praktika eta teoriari buruz hitz egingo dut, nire lanean landuriko Italiako Feminismoa, haien ereduarekin azalduz. Milango Emakumeen Liburutegia aurrera eramandako praktika guztien ondorio logikoa izan zela dio Chiara Martucci-k. Esaldi hori ulertu ahal izateko, baita liburutegi horrek izan zuen garrantzi (sinbolikoa) ere, hura sortu aurretik, emakumeek aurrera eramandako praktikak ulertzea beharrezkoa da. Haien bitartez, emakumeak politika berri bat aurrera eramateko gai izan ziren, zeinetan gizonetzkoen munduak eskainiriko tresnek, lekurik ez zuten. Helburua, emakumeen askatasuna zela ulertu zuten, eta ez gizonarekiko berdintasuna.⁵⁴

Praktika hauen jatorria edo sorrera desberdina izan zen, hasiera batean, Amerikako Estatu Batuetako influentzia jasan zuten, gainontzeko herrialdeen moduan, feminismoaren garapenerako. Baina, erlazio hori ez dut Milango Emakumeen Liburutegiko testuetan aurkitu, eta bertako emakumeek ere haiekiko erlazioz ez zutela esan zidaten. Egia esan, praktiken inguruan aritzean, haien alderdi utopikoa nabarmentzen da, hots, praktika hauen bitartez emakumearen zapalketa egoerarekin amaitzeko iturria aurkitu balute moduan.⁵⁵ Hurrengo eragin nagusia, Frantziako desberdintasun sexualeko talde feministena izan zen. Talde honek eragin nabarmena izan zuen Milango emakumeengan batez ere, eta hori argi ikusi daiteke, bai haien iturrietan, baita beste iturrietan ere, Amerikako Estatu Batuekin gertatzen ez den moduan.

Aurrera eramandako lehenengo praktika politikoa, eta jadanik ezagutzen duguna, autokontzientzia izan zen, emakume izatea zer zen ikasteko bide luzean, lehenengo pausoa. 70ko hamarkadan iritsi zen Italiara Amerikako Estatu Batuetatik. Hura izan zen historiagile askorentzako Italiako *Neofemminismo*arentzako hasiera puntua, 1970 hain zuzen ere, *Rivolta femminile* emakumeen talde erromatarrak praktika hau lehenengo aldiz aurrera eramane zuten urtea.⁵⁶ Nahiz eta ez zen Milanen hasi, hango taldeek aurrera

⁵⁴ Chiara Martucci, *Libreria delle donne di Milano* (Milano: Fondazione Elvira Badaracco, 2008), 11.

⁵⁵ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos.*, 41-42.

⁵⁶ Luisa Passerini, *Storia di donne e femministe*, 182-184.

eramandako praktiken artean nagusi izan zen, 1970-1974 urteen artean garatuz.⁵⁷ Praktika honen ezaugarriak hurrengoak ziren: emakumeek bakarrik osaturiko talde txikiak ziren, zeinetan haien esperientzien, minen, ametsen, ... inguruan hitz egiteko biltzen ziren; beraiek ziren protagonista. “En los grupos de autoconciencia, llamados también grupos de palabra, se hace política de lo simbólico, que consiste en nombrar la realidad que vivo pero que no encuentra en mi mundo palabras para decirse”.⁵⁸

Pixkanaka, emakumeen talde desberdinetan aurrera eramaten joan ziren praktika hau eta azkar, sustraiak bota zituen. Praktika erraza zen eta emakumeen tradizioan jadanik barneraturikoa, betidanik gizonengandik urrun txutxu-mutxuka ibiltzeko ohitura bai zuten. Oraingoan, ohitura horri jarrera politikoa eman zitzaion, gizonen mundutik, haien arazoez lekurik aurkitzen ez zuten mundua, urruntzen zen politika egiteko modua. Oraindik berdintasuna lortu ez zutenean, gizonetikiko berdintasuna zen gizarteratzearen aldeko mugimenduak jasan behar zituzten, eta honen aurrean aski da esatea erabaki zuten emakume askok. Ez zuten gizonetako berdina izan nahi, ez zituzten haien borrokarako instrumentuak nahi, beraz emakumeen tradizioan sorrera izan zezaketen praktika politiko bihurtzea, benetan erakargarri izan zen askorentzat.⁵⁹

Talde hauetan, lehenengo aldiz, emakume askok jende aurrean haien esperientziez hitz egiteko aukera izan zuten, haiek esateko zutena askorentzako garrantzitsua zela ikusiz. *Essere donna è bello* zuten goiburua, hau da, emakume izatea ederra da, bai eta emakumeen ezaugarri guztiak ere. Honela, aman komunean gauza asko zituztela ikusi zuten, nahiz eta izatez ez zen haien opresiozko egoeraz kontzientzia hartzeko lekua, emakume izatea zer zen ikastekoa baizik. Talde hauetan hitz egin aurretik, haien arazoak pertsonalak baino ez zirela pentsatzen zuten, baina denonak zirelaz ohartu ziren. Askatasunez hitz egiteko, pentsatzeko eta egiteko lekua, eta batez ere, beldurrik gabe huts egiteko lekua zen, askatzaileena izan zena.⁶⁰

Talde txiki hauek, emakumeek kontzientzia hartzeko leku bihurtu ziren, denek zuten haien egoera aditzera emateko aukera, beti txandak errespetatuz eta banan-banan hitz eginez. Etxe pribatuetan biltzen ziren praktika hau aurrera eramanez ahal izateko, espazio

⁵⁷ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 39.

⁵⁸ Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba*, 8.

⁵⁹ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 39.

⁶⁰ *Ibidem*, 41-42.

pribatu hori publiko bihurtuz, politika egiten bai zen haietan. “L’autocoscienza ha costituito il punto di partenza per l’invenzione di una pratica politica autonoma che ha consentito alle donne di trovare tempi, mezzi e luoghi in cui sperimentare nuove forme per mettersi (...) in un luogo collettivo non regolato dagli interessi maschili. (...) Rappresenta la sperimentazione di una forma di politica nuova”.⁶¹

Garaturiko praktika honen helburua beraz, identitate femenino horren aurkikuntza izan zen, emakumeek komunean zutena ulertuz. *Sè stesso*-aren aurkikuntza hain zuzen ere, beste emakumeen esperientzietan oinarrituz. Baina une batean, praktika hau ez zen nahiko izan. Emakumeek errealitatea aldatzeko grina zuten, eta hemen aurkitu zuten autokontzientziaren muga. Egia da haren garapena funtsezkoa izan zela emakume zer zen jakiteko, oinarritzko diferentzia hori ulertzeko, baina ondoren ez zuten errealitatea aldatzeko tresna baliagarririk ematen.⁶² Egoera honek, emakumeengan inpotentzia sentimendu bat sorrarazi zuen, praktika honek eman zezakena agortu egin zen eta. Asperturik zeuden behin eta berriz tresna berdina erabiltzeaz, baina hau puntu positiboa bilakatu zen. Beste hitzetan esanda: asperraldiaren aurkikuntzak, bide berriak aurkitu behar zituztela erakutsi zuen, baina egindako lana egokia izan zela:

“En realidad, la práctica de la autoconciencia había empezado a generar un sentimiento de impotencia por la sencilla razón de que se había agotado su potencial. Por su propia naturaleza, no podía prolongarse una vez conseguido su fruto. (...) Había arrancado la diferencia de ser mujer de la posición de algo dicho. (...) Ello generaba problemas y contradicciones que dicha práctica no podía afrontar, ni mucho menos resolver.”⁶³

Bi motatako hutsuneak nabarmendu ziren orain arte aurrera eramandako politikak erantzunik eman ezin zizkionak: lehenengoa emakumeengan sorturiko atsekabe hura eta bigarrena errealitatea aldatzeko tresnarik ez eman izana. Nahiz eta oraindik ere Italiako talde askok praktika hau aurrera eramaten jarraitu, Milanen 1973-1974 urteen bitartean, praktika berri baten bila aritu ziren. Praktika berri honek, emakumeak beraien artean eta munduarekin erlazioan jartzeko gai izan behar zuten. Haien inspirazioa, feminista frantsesak izan ziren, 1968.urtean Parisen sorturiko *Psychanalyse et Politique*

⁶¹ Chiara Martucci, *Libreria delle donne di Milano*, 10.

⁶² *Ibidem*, 9-10.

⁶³ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 47-48.

diferentzia sexualaren talde feminista hain zuzen ere. Haien hitzetan, emakumeen arteko erlazioen praktika zen mundua aldatzeko emakumeek zuten tresna. Hau izan zen, hitz gutxitan esanda, frantsesen ekarpen nagusia Milango taldeentzat.⁶⁴

Baina zer esan nahi zuen “emakumeen arteko erlazioak”? Emakumeen arteko erlazio guztien inguruan teorizatu eta praktikatzen ziren, emakumeak eskaini zitezkeen gaitasun fisiko eta psikiko guztiak aztertuz. Frantsesak autokontzientziaren kontra zeuden, eta praktika hori erabili beharrean, emakumeak haien egoeraz kontzientzia harrezaten garatu beharrekoa haien arteko erlazioa zela defendatzen zuten. Erlazio berri hori ezin zen debate eta elkarrizketen bitartez bakarrik garatu, Italiako emakumeek egin zuten moduan. Erlazio hori, batez ere, baina ez eskusiboki, emakumeen arteko maitasunezko manifestazioen bitartez eman behar zen. Haietaz gain, emakumeen arteko bidaiak, festak, dantzak, afariak, ... ere bultzatu zituzten, hauek jadanik Italian zeuden betiko bilerekin konbinatuz. Horrela, politika egiteko modu berri bat sortu zuten, erlazio sozialen sistema aldatu zitekeela erakutsiz.⁶⁵

1973.urtean, *Psychanalyse et Politique* eta Milango emakumeen taldeak, bidai bat egin zuten hondartzara elkarrekin. Bidai horren testigantza *Sottosopra* aldizkarian aurkitu dezakegu, *La Tranche: un encuentro internacional* izenez. Protagonista, topaketa horren inguruan izandako beldur, ideia eta sentimendu guztiei buruz mintzo da bertan, baita horren bitartez ikasi zuenaz ere:

“Y me he convencido en lo más profundo de que las mujeres, (...) no somos solo compañeras de una lucha de liberación (...) las mujeres pueden ser para las mujeres criaturas de las que nos podemos fiar, en las que podemos confiar, con las que estamos bien juntas, con las que nos divertimos bailando, discutiendo, haciendo proyectos y realizándolos: todas cosas que antes para mí, se habían verificado siempre en la presencia indispensable y determinante de hombres. (...) he descubierto, que se puede, que es precisamente necesario, “enamorarse” de las mujeres; para llegar a reconocerme también a mí con alegría en las mujeres, para reconstruir mi identidad, no solo en el dolor y en la rabia, sino en el entusiasmo y en la risa.”⁶⁶

⁶⁴ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 52.

⁶⁵ *Ibidem*, 53-58.

⁶⁶ Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba*, 15-16.

Politika berri honek, arazo zaharrak plazaratu zituen, emakumeek gizonekin zituzten erlazioetan ere errepikatzen zirenak, baita konplikatuagoak ere. Horiei buruz hitz egin ahal izateko, jadanik autokontzientziak ez zuen balio, beraz talde askok, batez ere Milaneok frantsesen eraginaren ondorioz, praktika berri batean aritu ziren 1974-1975 urteetan zehar. Honi, inkontzientearen praktika deitu zitzaion. Praktika hau benetan zaila izan zen, batez ere gainontzekoekin komunikatzeko orduan. Psikoanalisiaren teorian zuen muina eta haren helburua hitzen bitartez, emakumeen inkontzientean nolabait ezkutaturik egon zitezkeen esperientziak aztertzea zen eta honen inguruan praktika politikoa egitea.

Egia esan, laster utzi zen alde batera, planteatzen zituen arazoengatik batez ere. Baina haren erabilerak, gauza asko azaleratu zituen, aurrerago haien teoriaren oinarri izango zirenak. Praktika honekin, emakumeen “barneko mundua” aztertu ahal izan zen nolabait, batez ere haien fantasia ezkutuak jakitera emanez. Horrela, gizarte honek emakumeentzako lekurik ez zuela hobeto ulertu zuten, haien fantasia horiek ezkutuan mantendu behar bait ziren, emakumezko erreferentzia sinbolikoaren faltaren ondorioz.⁶⁷ Dena den, benetan konplexua da ideia hau eta aldi berean Milango Emakumeen Liburutegiko teoriaren oinarria. Hori dela eta aurrerago berrartuko dut.

Orain arte azterturikoak, praktika batek gehiago ezin zuenean eman, emakumeen mugimendua politika egiteko modua azkar aldatzeko gai zela erakusten du. Honek errealitate berrietara egokitzeko zuen gaitasuna adierazten du, baita egunerokotasunean egiten diren jardueri esanahi politikoa emateko gai zirela erakutsi ere. Baina arazo handiago bat zegoen: autokontzientziarekin gertatu zen moduan, emakumeek zerbait gehiago behar zuten aurrera jarraitu ahal izateko. Orain arteko praktikek, emakume bakoitzari nolabaiteko jakintza lortzen lagundu zioten, baina ez zuten kolektiboa aberasten⁶⁸. Gainera, haien “borroka” hitz egitea baino ez zelaz ohartu ziren asko, eta hitzekin bakarrik ezingo zirela urrun iritsi ikusi zuten. Praktika horiekin, haien energia askatzea lortu zuten, baina orain, ikasitako guzti hori menderatu nahi zuten eta bizitako guztia kaleratu, aldi berean baliagarriak zirela erakutsiz. Aurrera eramandako praktika berria “egitearen praktika” izenez ezagutu zen eta 1976eko urtarrilaren 20an argitaratutako testu baten bitartez eman zen ezagutzera haren teoria.

⁶⁷ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 58-61.

⁶⁸ Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba*, 81.

Panfletu bidez banaturiko testu hura, Milango Emakumeen Liburutegia sortuko zuten emakumeen kolektiboak idatzi zuen, *Via Cherubini* deiturikoa. Adierazitakoa, hitz gutxitan esanda, honako hau izan zen:⁶⁹

- Arazoa: emakumeen opresiozko egoera *materiala*⁷⁰ zen eta beraz hitzen bitartez bakarrik egindako mugimenduek ezin zioten aurre egin.
- Konponbidea: politika berri bat, oraingoan ez zena kontzientziazioan zentratuko, emakumeentzako espazio sozialak sortzean baizik.

Errealitatea aldatzea beharrezkoa zen, emakumeek askatasuna lor zezaten; praktika hau izango zen helburu hori lortzen lagunduko ziotena. Arazo berri bati erantzuna emango zion gainera, izan ere, gizartean emakumeak gustura egoteko elementuak falta zirela ikusi zuten. Testuinguru honetan sortu zen Milango Emakumeen Liburutegia, emakumeentzako leku soziala izango zena, haien eta munduaren arteko lotura egiteko helburuarekin,⁷¹ Honetaz gain, Italian Diferentzia Sexualaren Feminismoaren teoria osatzeko eremua ere izan zen.

“La Libreria delle donne esiste per iniziativa di un gruppo di donne legate tra loro da una lunga pratica politica. Il progetto nasceva dal desiderio di rendere più ricche e articolate le relazioni tra donne, allora limitate ai gruppi di parola, misurandosi nella realizzazione di un progetto concreto che impegnasse energie, tempo e denaro, per un luogo in cui l’energia femminile è deviata dal suo uso sociale regolare.”⁷²

1975eko urtarrilean, Milanen, *la Libreria delle Donne* (Emakumeen Liburutegia) zabaldu zen eta oraindik ere bertan dago, lanean jarraitzen dute, sortu zenean zituen helburu berdinekin. Espazio honetan, emakumeek produzituriko idazlanak baino ez zituzten bildu eta salduko. Aldi berean esperientzia berrien bilgunea izango zen, emakumeak bertan bilduko bait ziren haien esperientziez, sentimenduez, iritziez... hitz

⁶⁹ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 111-118.

⁷⁰ Hainbat opresiozko egoera zerrendatu zituzten, kategoria desberdinetakoak; horietako batzuk: izaera sinbolikozkoak (seme-alabek aitaren abizena eramatea), izaera psikikozkoak (adibidez gizonen biolentzia eragitea) edo izaera ekonomikozkoak.

⁷¹ Beti, “egitearen praktikaren” barnean, Italiako beste hiri askotan emakumeentzako espazio gehiago zabaldu ziren: Erroman, Milango eredia jarraituz, *Cooperativa di Via Beato Angelico* zabaldu zuten eta ondoren Torino, Bologna, Firenze baita Pisan, emakumeen liburutegiak zabaldu ziren. Emakumeen liburuak argitaratuko zituzten argitaletxeak ere egon ziren, baita jarduera desberdinak proposatu zituzten zentro sozialak ere.

⁷² Chiara Martucci, *Libreria delle donne di Milano*, 9-15.

egiteko, iragana eta orainaldia esparru berdinean bilduz. Aipatu moduan, azaldutako praktikek espazio pribatuetan egitea eragin zien emakumeei, askok errealitatera atera nahi zuten, nahiz eta hura aldatu behar emakumeek haien lekua aurkitu zezaten. Milango Emakumeen Liburutegiak, baita aurrerago zabalduko zirenek ere, funtzio hori bete zuen: espazio publikoa zen, politikoa beraz.⁷³

Liburutegiaren produkzio nagusia, haren teoria guztia azaltzen duena, *Sottosopra*⁷⁴ aldizkaria izan zen, lehenengo alea 1975ean argitaratua, bildutako emakumeen arteko debateak azaltzen dira bertan: teoria filosofikoaren korpusa. Idatzi horietan bildutakoa, María-Milagros Rivera Garretas-ek honela laburtzen du: “se cuenta en vivo la historia del descubrimiento, en el movimiento político de las mujeres, de las palabras preciosas que, en los últimos treinta años, han ido nombrando el sentido libre de la diferencia sexual femenina.”⁷⁵

3.4. Helburua: emakumeentzako mundu komuna eraiki⁷⁶

Behin Emakumeen Liburutegia zabalduz, politika egiten jarraitu zezaketen, oraingoan gizartean haien espazioa izanik. Nolabait, bigarren aroa zabaldu zen Italiako feminismoan: emakume izatea zer zen jakin zuten eta orain errealitatean zeuden arazoei irtenbidea ematera ekin behar zuten. Azken praktika bat eraman zuten aurrera Milango emakumeek, jada 80.ko hamarkadan garaturikoa: emakumeen arteko desberdintasunen goraiatzea eta honekin batera haien arteko *affidamento*-a.⁷⁷ Eta praktika honen bitartez, haien ondorio nagusira iritsi ziren: emakumeentzako mundu komuna eraikitzea beharrezkoa zen.

Azken atal hau osatzeko, 1983an argitaraturiko *Sottosopra* aldizkariaren edizioa izango dut oinarri. Jadanik badakite zer den emakume izatea, praktika desberdinak eraman

⁷³ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 128-130.

⁷⁴ Nik proposaturiko itzulpena: hankaz-gora.

⁷⁵ M.^a Milagros Rivera Garretas, “Prólogo”, *La cultura patas arriba*, 9.

⁷⁶ Milango Emakumeen Liburutegikoek erabilitako esamoldea.

⁷⁷ *No creas tener derechos* liburuaren itzultzailearen erudia jarraituz, nik ere hitz hau italieraz mantentzea erabaki dut, itzulpen zehatzik aurkitzea ezinezkoa egin bai zait. Italiako feminismoan parte hartu zuten emakumeek hainbat esanahi eman zizkieten: fidatu, babesa eman, lagundu, aholku ematen utzi, eta ez dut euskaraz hori guztia azaltzen duen hitzik aurkitu, hori dela eta, atal honetan hitz hori italieraz eta kurtsiban agertuko da.

dituzte aurrera, baita haienezako espazio komun bat ere sortu gizartean; baina orain, esperientzia guzti hori, ikasitakoa eta emakume izatearen balioa, errealitate bilakatu behar dute.⁷⁸ Aldizkari honetan ateratako ondorio nagusia, emakumeak ere, gizonak duen modura, irabazteko, gizartean norbait izateko grina duela izan zen, baina mundu honetan ez dituela grin hori aurrera ateratzeko instrumentuak aurkitzen: “Existe, una innegable reticencia femenina a admitir que una mujer, como todo ser humano, en lo más profundo no desea cualquier otra cosa sino todo.”⁷⁹

Emakumeak, gogo hori izan arren, gizonezkoen munduan arrakasta lortzeko modu bakarra, gizonezkoa izatea zela ulertu zuten, beraz gizarte horretan sartzeko emakume egiten diena alde batera utzi behar dute edo bestela, mundu hartatik kanpo mantendu. Gizonezkoen munduan emakumeen ametsak, balioek, ez dute garrantzirik, hori dela eta, emakumeentzako mundu bat beharrezkoa zen: haien diren bezala gustura egon zitezkeen mundu bat. Mundu hori, gizonezkoen instrumenturik erabili gabe sortu behar zuten.⁸⁰

Hura lortu ahal izateko, guztien esperientziak bildu zitezkeen hizkuntza komun bat bilatzen saiatu ziren, eta berdintasun hura bilatzen saiatzean, haien arteko esperientziak ere berdinak ez zirela ulertu zuten. Ez zuen inongo zentzurik berdintasunaren kontzeptua haien errealitatean ere erabiltzeak, zeren berdintasunaren kontzeptu unibertsala, gizonek asmatu zerbait zen: ez zuen emakumeentzat balio. Ez ziren berdinak haien artean, eta hura onartu izana, askatzailea izan zen. Haien arteko desberdintasunetatik, baina batez ere hori ulertu izanetik, abantaila izugarria atera zezaketen: “Significaba romper con la equiparación de todas las mujeres y su consiguiente sometimiento a las distinciones operadas por el pensamiento masculino, según sus criterios”.⁸¹

Desberdintasun horretaz baliotu behar ziren, gizartean aurrera egiteko laguntza aurkitzeko. Emakume batek ezin du bere kabuz mundu honetan ezer egin, beste emakume batean eta haren esperientzia desberdinetan aurkitu behar du sostengua

⁷⁸ Ibidem, 107.

⁷⁹ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 173.

⁸⁰ Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba*, 116-121.

⁸¹ Ibidem, 165-168.

mundu honetan norbait izatera iristeko. Praktika berri hura, *affidamento*-aren praktika izan zen, desberdintasun horiek aurrera eramateko modua: emakumeak haien erreferente bilakatuko ziren, patriarkatuak proposaturiko berdintasunaren aurka.⁸² Praktika hori, aliantza moduan ulertu beharra dugu, zeinetan zaharra izatea esperientziak emandako jakintza moduan ulertzen den eta gaztea izatea aldiz, oraindik ametsak, helburuak osorik izatea. Bata eta bestea harremanetan jartzen dira, horrela munduan aurrera egin ahal izateko, bien arteko laguntzaren bitartez.⁸³

Praktika honen bitartez, beste emakumeen dohainak eta ekintzak miresten ikasi zuten, baita gizartean femeninotzat kalifikatzen ziren gauzak, ez zirela txarrak ulertu. Aldi berean, haien sexuan aurkituz benetan zuten balioa ulertzeko iturria.⁸⁴ Femeninoak, desberdintasuna baino ez bai zuen adierazten: hasieratik egon den sexuen arteko desberdintasuna. Hura, onartu beharra dago, emakumeak gizonezkoengandik desberdinak bai dira, baina desberdintasun horretan, gizonezkoak bezain gai munduan aurrera egiteko, emakume egiten dituen ezaugarriak alde batera utzi gabe. Hori gerta zedin, emakumeen mundu (sinboliko) komuna beharrezkoa zen, askatasuna lortzeko, eta hura haien arteko erlazioetan oinarrituriko gizartearen onarpenaren bitartez iritsi zen.⁸⁵

Jakintza hau guztia barneratu ostean, eta hamar urte beranduago argitaraturiko *Sottosopra* aldizkariaren azken edizioan, 1996koan, patriarkatuaren amaiera aldarrikatu zuten. Haren iraupena, emakumeentzako zuen esanahiarekin batera amaitu zela zioten. Jadanik ezin du emakumea menderatu, haren nolakotasunak bere kabuz definitu ditzake eta, gizonezkoen beharrik gabe. Pixkanaka, eta geroz eta gehiago, emakumea bere munduaren jabe da. Kontzientzia hartu izanaren ondorioz, praktika guztiak aurrera eramane ostean, emakumeak askatasuna lortu du, patriarkatuaren sistemarekin amaitzea lortzeraino.⁸⁶

⁸² Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba*, 121-124.

⁸³ Librería de Mujeres de Milan, *No creas tener derechos*, 187.

⁸⁴ *Ibidem*, 184.

⁸⁵ *Ibidem*, 189-199.

⁸⁶ Librería Mujeres de Milán, *La cultura patas arriba*, 185-187.

4. ONDORIOAK

Italian garaturiko korrante feminista honen eboluzioa aztertu ostean, baita harengan eragina izan zuten mugimendu nagusien teoriak ere, hainbat ondoriotara iritsi gaitzke. Argi utzi zuten, bai beraien praktiken bitartez, baita haiei esker garaturiko filosofia edo teoriekin ere, feminismo honen helburu nagusia emakumeentzako mundu berri bat sortzea zela, sinbolikoa izan arren. Helburu honek oso argi erakusten du korrante honetan parte hartutako emakumeen konnotazio utopikoa. Marxismoarekin gertatu moduan, haiek ere mundu berri baten sorrerarekin sinisten dute, emakumeek egin emakumeentzako eta noski, gizonezkoek sorturiko tresnarik erabili gabe eraikia. Hori, esparru guztietara zabaldu zitekeen: gizonezkoen legeek ez zuten emakumea kontuan, ezta zientziak, zuzenbideak edo medikuntzak ere. *Sottosopra* aldizkarian, arlo guzti horiek emakumeentzako banandu behar zirela azaltzen dute, baina ez gizonezkoen munduan pixkanaka sartuz eta errealitate hori aldatuz, baizik eta emakumeentzako berriak sortu. Nire iritziz, ideia hori nolabaiteko atzera pausoa izan zen: legeak, esaterako, gizonek egindakoak baziren ere, haientzako onuragarriak izan zitezkeen, neurri txikian bazen ere. Beraien mundua sortzen zuten bitartean, orain bizi ziren mundu horretan gustura bizitzeko modua, haien espazio txikitetan ezkutatu beharrean.

Aurrera eramandako praktika politikoen inguruan, testigantzak irakurri ezker, *Sottosopra* aldizkarian biltzen direnak, emakumeengan, modu pertsonalean, benetan positiboak izan zirela esan beharra dago. Gizartean beraien lekua aurkitu zuten eta barruan gordeta zituzten beldurrak ateratzeko gai izan ziren, baita zer egiteko gauza ziren erakutsi: lehenik eta behin norberari, eta ondoren gainontzekoei. Egia da, gizartean haien lekua aurkitzea lortu zutela, behintzat sentimendu hori izan zutela, espazio pribatuak politiko bilakatu. Baina, ondo aztertu ezker, nire iritziz, errealitatetik aldentu baino ez ziren egin. Haien lanerako espazioak, pribatuak izaten jarraitu zuten, gizarte publikotik kanpo zeudenak, nahiz eta beraien praktiken bitartez espazio horiek politizatzen zituztela esan. Emakumeekin baino ez ziren erlazionatzen, bai etxeetan, autokontzientziaren praktikarekin; bai bidaietan, emakumeen arteko erlazioen praktikarekin; baita liburutegian, egitearen praktikarekin. Hau da: emakumeentzako nolabaiteko paradisu bat sortu zuten, kanpoko mundutik at, eta bertan geratu ziren, errealitatea benetan aldatzeko tresnak garatu beharrean.

Errealitatea benetan aldatzeko tresnarik ez garatzean, praktika guzti horiek askorengan etsipena sortu zutela agerri da. Denek izan zuten eragina, esan bezala positiboa, baina hura iragankorra izan zen beti. Pixkanaka haien gaitasunez ohartu ziren, eta horrek geroz eta gauza handiagoak egin nahi izatera bultzatu, Milango Emakumeen Liburutegia izanik praktika guztien gailurra. Ondoren, jarrera politikoagoa eman nahi izan zioten haien espazioari, baina hura ez zen gertatu, moderazioaren aldeko jarrerarekin jarraituz, politika gizonezkoena bai zen. “Tener un lugar donde hacer algo juntas, sin mayores especificaciones, era el cenagal que amenazaba toda la política del hacer (...) la nueva práctica simplemente ofrecía una mejor oportunidad de conocer y hacer valer los propios deseos.”⁸⁷

Hala ere, ateratako ondorioekin amaitzeko, emakumeentzako onuragarria izan zela azpimarratu nahiko nuke. Egia da praktika guztiek izan zutela haien iraugitze data, baina hori alde batera utzi ezker, emakumeak emakume egiten zituen elementu guztiak goraiatu zituen. Bizitzak, esperientzia desberdinak izatea eragiten die emakumeei eta feminismo honen bitartez, horiek guztiak garrantzitsuak zirela ikasi zuten. Honi esker, ez zuten gizonekiko berdintasunik nahi: emakume izatea ederra zen benetan, eta guztiek sentimendu hori izan zezaten lortu zuten. Ideia hau oso argi geratzen da *Sottosopra* liburuan biltzen diren testigantzetan: haien borroka, iraganeko emakume guztiek askatasunagatik erakutsitako maitasunaren (zahararren) oinordekoa zen.

Lan honen bitartez, Italiako diferentziaren feminismoa landu nahi izan dut, Milango emakumeek 1966-1989 urteen bitartean joraturiko ibilbidea hartuz mugimenduaren ardatz gisa. Haien testigantzak izan dira nire lanaren iturri nagusia. Horiei esker, alderdi historiografikoa osatu ahal izan dut, feminismo honen garapenerako aurrera eramandako praktikak ezagutzuz. Bide batez, gertakari horiek bizi izan zituzten emakumeak ezagutzeko aukera ere badugu, testigantza haietan beraien sentimenduak, bizipenak eta pentsamenduak azaltzen bait dira. Honekin guztiarekin, ezagutzen dugun feminismitik urruntzen den teoria bat hurbildu nahi izan dut.

⁸⁷ Librería de Mujeres de Milán, *No creas tener derechos*, 135-136.

5. BIBLIOGRAFIA

- Cavarero, Adriana, & Restaino, Franco. *Le filosofie femministe*. Milano: Paravia Bruno Mondadori Editori, 2002.
- Fiamma, Lussana. “Le donne e la modernizzazione: il neofemminismo degli anni settanta”. *Storia della Italia repubblicana III*. Torino: Giulio Einaudi editore, 1997.
- Gamba, Susana. “Feminismo: historia y corrientes”. *Diccionario de Estudios de Género y Feminismos*. Buenos Aires: Editorial Biblos, 2008.
- Hdez. Piñeiro, Aránzazu. “Igualdad, diferencia: genealogías feministas”. *Femenismo/s* 15 (junio, 2010): 75-94.
- Librería de Mujeres de Milán. *No creas tener derechos: La generación de la libertad femenina en las ideas y vivencias de un grupo de mujeres*. Madrid: horas y HORAS, 1991.
- Librería Mujeres de Milán. *La cultura patas arriba: “Selección de la Revista Sottosopra con el final del patriarcado 1973-1996”*. Madrid: horas y HORAS, 2006.
- Lonzi, Carla. “Manifesto di Rivolta Femminile”. *Sputiamo su Hegel*. [1970]. Milano: Galli Thierry Stampa, 2013.
- Lonzi, Carla. “Sputiamo su Hegel”. *Sputiamo su Hegel*. [1970]. Milano: Galli Thierry Stampa, 2013.
- Martucci, Chiara. *Libreria delle donne di Milano: Un laboratorio di pratica politica*, Milano: Fondazione Elvira Badaracco, 2008.
- Mirizio, Annalisa. “¿Adónde conduce la exaltación de lo femenino? Logros y límites políticos del pensamiento de la diferencia sexual italiano”. *Femenismo/s* 15 (junio, 2010): 95-117.
- Passerini, Luisa. *Storie di donne e femministe*. Torino: Rosenberg & Sellier, 1991.
- Posada Kubissa, Luisa. “Diferencia, identidad y feminismo: una aproximación al pensamiento de Luce Irigaray”. *LOGOS. Anales de Seminario de Metafísica*, vol. 39 (2006): 181-201.

Rossi-Doria, Anna. “Ipotesi per una storia del neofemminismo italiano”. *Dare forma al silenzio. Scritti di storia politica delle donne*. Roma: Viella, 2007.

Rubio Castro, Ana. “El feminismo de la diferencia: los argumentos de una igualdad compleja”. *Revista de Estudios políticos*, 70 (octubre-noviembre, 1990): 185-207.